



## Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:**  
**Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



**Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa**

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.

<http://www.revistaaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Onkologia Medikoko Zerbitzua / Prestakuntza Espezializatua. Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea..

Barakaldo. Bizkaia. [CC BY-NC-ND](https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/)



## Onkologia Medikoa

**Onkologia Medikoa** Medikuntzaren enborrezko espezialitatea dugu, Medikuntza klinikoan oinarritzko prestakuntza eskatzen duena, eta espezialistak gaitzen dituen minbizia duten pazienteak ebaluatu eta era integralean maneiatzeko, arreta berezia eskainiz erabakimenari eta preskripzioa farmakologiko terapeutiko antineoplasikoari. Onkologoa kliniko ona izan behar da, paziente onkologikoak dituen osasun-arazoak diagnostikatu, eta konponbideak bilatzeko gai dena -bere gaixotasunarekin edo tratamendu neoplastikoarekin zerikusia duten arazoak izan zein ez izan- , zaindu arte edo gaixotasunaren bilakaeran eta pazientearen aro terminalara arte, senideen dolua barne.

Jarraian zehaztuko dira:

- Nor gara
- Non gaude
- Irakaskuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (errotazioak)
- Ikerketa
- Prestakuntzaren ebaluazioa



## Nor gara

**Zerbitziburua: Guillermo López Vivanco dk.**

**Tutoreak: Inés Marrodan Ciordia eta Sergio Carrera Revilla**

Zerbitzua 1994. urtean sortu zen, eta 2013an Onkologia medikoko Estatuko Batzordeak diseinatutako prestakuntza-programa oso-osorik eskaintzen du. 1996az geroztik, espezialisten prestakuntzarako akreditatuta dago, eta 2 plaza eskaintzen du urteko.

20 urtez, López Vivanco doktoreak zuzendu du zerbitzua.

Zerbitzuaren garapenean izandako gertaerarik nabarmenenak hauek dira:

- Onkologia Medikoa atal bereizi bezala aitortzea, erradioterapiatik behin-betiko banatuta, minbizia duten pazienteen artatzearekin zerikusia duten prozesuen anbulatorizazio progresiboarekin.
- Eguneko Ospitalea 1955ean zabaldu zen, tratamendu antineoplastikoak emateko, modu anbulatorioan.
- Hainbat Saiakuntza Klinikotan parte hartzea, zenbait tumoretan 1996tik aurrera, eta gerora, 1999an, Data Managers-en sartzea.
- Garatze eta Trebakuntza transplante autologo guraso hematopoiéticoengandik, 1997 urtetik.
- Kanpo-kontsultak abiaraztea 1999an, minbiziaren hasierako balorazioa lehenengo bisitan eta geroko jarraipena egiteko. Bereizmen handiko kontsulta izan genuen 2002. urtean, lau urtez.
- Biologia Molekularreko Ikerketa-ildoan bilakaeraren hasiera 1996. urtean.
- Eguneko-Ospitale berriaren inaugurazioa 2005. urtean, tratamendurako 50 postu eta 22 oherekin, eta Onkologia Medikoko solairuaren birmoldatzearekin, egun, erabilgarri dauzkagu 41 ohe, eta Kanpo-kontsultak beheko solairura egindako lekualdatzearekin 4 kontsulta 2006. Urtean.
- Aholku-Genetikoaren Unitatea abian jartzea.
- Likidoen biopsia abiarazteko lanean ari gara.
- Ikerkuntza sustatzeko eta finantzatzeko laguntza-unitatea sortzea Unitatea sortzea (ASONMEC)



Hauek osatzen dute lantaldea:

- 1 zerbitzuburu: Guillermo López Vivanco dk.
- 1 atalburu: Alberto Muñoz Llarena dk.
- 17 mediku adjuntu
- 2 mediku egoiliar urtero

Zerbitzuak atal edo unitate asistentzial hauek ditu:

- ✓ Ospitalizazioko 41 ohe
- ✓ 4 kanpo-kontsulta (hemen egiten dira lehenengo bisitak eta jarraipenak; horietako bat Aholku Genetikoa da).
- ✓ 8 kontsulta Eguneko Ospitalean (bertan, tratamendu antineoplasikoak ematen dira)
- ✓ Ikerketa Unitatea

## **EZKERRADE ENKARTERRI GURURTZETAKO ESiko URTEKO MEMORIA**



## Non gaude

Onkologia Medikoko Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea dago:  
Gurutzetako plaza z/g. Barakaldo 48903.  
Barakaldo, Bizkaia

[Ikus Ospitalea Google Mapsen](#)

Zerbitzuko idazkaritza beheko solairuko E aldean dago. Gure kanpo-kontsultak eta eguneko ospitalea ere bertan daude.  
Ospitalizazioko solairua 1.E aldean dago.

**Harremanetarako telefonoa:** +34-94.600.6333

Beatriz Fernández Aguayo

**Posta elektronikoa:** [Secretaria.oncologiaCruces@osakidetza.eus](mailto:Secretaria.oncologiaCruces@osakidetza.eus)





## Prestakuntza-eskaintza

Zerbitzuaren antolamenduak eta asistentzia-jarduera ugariak ahalbidetzen digute espezialitatearen arlo guztietan prestakuntza osoa eskaini eta bermatzea.

- a. Minbizia diagnostikatu zaion pazientearen balorazioa eta hasierako planteamendu terapeutikoa
- b. Tratamendu antineoplasikoen manejuak; ekintza-mekanismoa, dosia, sekuentzia eta intentsioa. Diagnostikoa eta tratamenduarekin lotutako toxikotasuna.
- c. Larrialdi onkologiko eta Paraneoplastiko-sindromeen aitortze eta manejuak.
- d. Minbizi familiar eta hereditarioa
- e. Transplante autologoa guraso hematopoietikogandik
- f. Minbizia duen pazientearen zainketa jarraipena diagnostikotik
- g. Ikerkuntza Biologia Molekularrean
- h. Parte-hartzea saiakuntza klinikoetan
- i. Medikuen eta pazientearen arteko harremana eta familia-ingurua
- j. Parte-hartzea Tumore Batzordean
- k. Osasun Publikoaren sustapena

### **Gainera, arreta berezia egiten diegu patologia edo prozedura konplexu hauei:**

- a. Transplante Autologo guraso hematopoietikogandik; adierazleak, pazientearen egokitasunerako aurretiko azterketa, mobilizazioa, aferesia, egokitzea, infusia eta konplikazioen manejuak
- b. Parte-hartze aktiboa saiakuntza klinikoetan; inklusio-irizpideak, erreklutamendua, Baimen informatuak eta geroko jarraipena.
- c. Aholku-genetikoaren Unitatea; herentziazko eta familiako minbiziaren arrisku genetikoaren balorazioa, horren ondoriozko inplikazioak, planteamendu terapeutikoa eta jarraipena..
- d. Biologia Molekularra; ikerkuntza-proiektuak diseinatu eta garatu

Prestakuntza Ibilbideak eskaintzen dizkiegu beste zentroetatik etorritako profesionalei, gure edozein lan-eremutan aritzeko, bereziki Ahoku-Genetikoa (Estatuko Onkologia Medikoko Zerbitzu guztiek ez dute)

Informazio gehiagorako, jo ezazu gure zerbitzu-zorrora:

[Ospitalea > Zerbitzu-zorroa > ONKOLOGIA MEDIKOA.](#)



Irakaskuntzako Batzordeak hainbat ikastaro antolatzen du ([ikusi irakaskuntzako jarduerak](#)) espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza osatze aldera, gehienak nahitaezkoak amaierako titulazioa lortzeko.

Saio klinikoak egunero egiten dira, 14:30ean, eta bertan aurkezten dira interes bereziko kasu klinikoak, erabaki terapeutikoak dakarren zailtasunengatik.

Halaber, astean behin, saio tematikoak programatzen dira (ostiraletan, 8:30).



## Prestakuntza-ibilbida (errotazioak)

### **1. urtea:**

- a. Larrialdi Orokorrak: 2 hilabete
- b. Barne Medikuntza: 2 hilabete
- c. Arnas aparatua: 2 hilabete
- d. Digestiboa: 2 hilabete
- e. Neurologia: 2 hilabete
- f. Infekziosoak: 2 hilabete

### **2. urtea:**

- a. Kardiologia: 2 hilabete
- b. Nefrologia: 2 hilabete
- c. Haur Onkologia: 2 hilabete
- d. Erradioterapia: 2 hilabete
- e. Onkologia Medikoaren Ospitalizazioa: 4 hilabete

### **3. urtea:**

- a. Onkologia Medikoaren Ospitalizazioa: 5 hilabete
- b. Erradiodiagnostikoa: 2 hilabete
- c. Eguneko Ospitalea: 5 hilabete

### **4. urtea:**

- a. Hematologia: 2 hilabete
- b. Eguneko Ospitalea: 7 hilabete
- c. Kanpo Kontsultak: 3 hilabete

### **5. año:**

- a. Kanpo Kontsultak: 7 hilabete
- b. Aholku genetikoa: 2 hilabete
- c. Ikerketa Unitatea: 3 hilabete





Egoiliarrak kanpoko egoitza-aldiak egin ditzake estatuko edo nazioarteko izen handiko zentroetan, azken urteko errotazioan (kanpo-kontsultak).

**Espezialitatearen berezko prestakuntza-ikastaroak hauek dira:**

- Gaixotasun Neoplasikoei buruzko Masterra, Onkologia medikoko Zerbitzuak koordinatua, EHUrekin elkarlanean.
- SEOM ziurtagiria (Onkologia Medikoko gradu ondoko diploma)
- Minbiziaren berrikuspenak (SEOMek sustatua)
- Zainketa Jarraituei buruzko ikastaroa (SEOMek sustatua)
- Onkologia Medikoko Iparreko egoiliarren Biltzarra (RON)
- Gainera, Erizaintzako Eskolarekin eta Bizkaiko Medikuen Elkargoarekin batera, hainbat ikastaro antolatzen ditu gure zerbitzuak.
- Egoiliarrak interesgarritzat jotzen diren estatuko zein nazioarteko ikastaro eta biltzarretara joango dira.



## Ikerkuntza

[BioCruces Ikerkuntza Institutuak](#) laguntza ematen dio zerbitzuari ikerketa alorrean.

Zerbitzuak hainbat ikerketa-lerro zuzentzen ditu edo sareko elkarlanean dihardu Minbiziaren Ikerketa Arloan, Onkologia Medikoko zerbitzuburu López Vivanco doktoreak gidatua. Arlo horren barruan, Onkologia Medikoaren taldean kokatzen gara.

Onkologia Medikoko ikerketa-taldeak ikerketa-programa propioa garatu du azken urteotan, bereziki, 4 ikerketa-lerro hauetan ardazturik:

- ✓ Minbiziaren Biologia Molekular eta Zelularra (Kolon eta Ondestea, Birika, Bularra, Melanoma)
- ✓ Proteomikoa Biriketako Minbizian
- ✓ Farmakogenetika, Farmakozinetika eta Farmakodinamia (Konlon-ondesteko minbizia eta bularreko minbizia)
- ✓ Ikerketa kliniko aplikatua
- ✓ Prestakuntza ikerketan

Halaber, elkarlanean dihardugu farmazia-industria eta kooperazioko talde zientifikoekin. Izan ere, urte hauetan, 131 Saiakuntza Klinikoetan parte hartu dugu eta 10 -12 saiakuntza aktibo izan ohi ditugu aldi berean.

Egoiliarra apurka-apurka hasten da ikerketa-lanetan, eta egoitza-aldiak iraun bitartean, doktorego-tesia hasteko aukera du egoitzaren 2. urtea amaitu ondoren.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio xeheagoa hemen duzue eskuragarri:

### [MEMORIA ZIENTIFIKOA](#)



## Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. **“Ebaluazio formatiboa”** deitutako ebaluazio mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du aho batez, eta bertan, egoiliarraren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera **“Egoiliarraren Urteko Txostena”** osatzen dute. Tutorea prestakuntza prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Alergia Zerbitzuko BAMEek (Barruko Mediku Egoiliarrak) lortu beharreko gaitasunak, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Analisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Asistentzia- eta irakaskuntza-gaitasunak, espezialitatearen beraren ikerketa gaitasunekin batera, hemen biltzen dira: [Programa oficial de la especialidad de Oncología Médica](#)



### **Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra<sup>1</sup>.**

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den **“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”** proiektuaren parte da. **Ebaluazio metodoak** hauek dira:

- a. Txandatze bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredia)
- b. Tutorearekin aldi behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlazionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- e. Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

### **Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.**

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze inkesta bat bidaltzen die.
2. Bi urtean behin, otsaila eta martxo bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da.

Emaitzak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaie.



## Onkologia Medikoa ©